

BESTE LAN ERREFORMA BAT ABUZTUAN

Helburu argia du: aldebakarreko enpresa erabakia erraztu kaleratu ahal izateko

Krisi garaian Abuztuko hilabetea baliatu izan da lan eskubideak eta eskubide sozialen aurka erreforma larriak gauzatzeko. Larriena, konstituzioaren erreforma non, Zapateroren proposamenaz, ezarri zen aurrekontuen lehentasuna zor publikoarekin espekulatzen zutenak kobratu behar zutela.

Egungo abagunean erreforma hauek hezur-muinetaraino ustelkeria arazoetan barneraturik dagoen PPren eskutik datoz. Harrigarria da erreformak animatu eta onurak ateratzen dituztenentzat ustelkeria arazoa ez izatea. Nola izango da ba! Ez da arazoa patronalarentzat, ezta Euopar Batzordearentzat, ez eta Nazioarteko Monetaren Funtsarentzat... Finean berdina defendatzen dute. "Gure ustelak dira" esango dute erakunde horiek, zinismo handiz.

Onarturiko erreformaren helburuak argiak dira: enplegu gaietan aldebakarreko kudeaketa erraztu enpresariari, honela epaitegien eskuhartzea ezertan gera dadin- bereziki zenbait ERE ez baliozkotzat ematen direnean-.

Abuztuaren 2an onarturiko erreformak, beste gaien artean, honakoa dakar:

- ERE-en negoziaketan komisiotako partaideen kopurua murrizten da, mahai bakarrean negoziatzera behartuz hainbat lan zentru inplikaturik badaude ere. Asmoa da ekintza sindikala ekiditea zenbait eremutan (Euskal Herria kasu) non sindikatuak enplegu suntsiketaren aurka borrokan dihardugun.
- Atzerriko multinazionalak ez dute bere kontu konsolidatuak aurkeztu behar. Astakeria galanta da kontutan hartzen badugu erakunde hauek bere kontuak moldatzeko duten erraztasuna, irabaziak eta galerak komeni zaien herrialdeetan aurkezteko aukera, zergak ez ordaintzeko edota edozein EREa aurkezteko. Honek argiro erakusten du zein harreman estua duten gobernuak eta enpresa handietako interesek.
- Helegite kolektiboei lehentasuna ematen zaie norbanakoen aurrean, azken hauek epaitu gabeko gaietara mugatzen direlarik edo oinarritzko eskubideak urratzen direnean bakarrik. ELAk iragarri zuen gobernuak legea aldatuko zuela hori gerta ez zedin. Confebask-ek horixe bera eskatzen zuen aditzera eman zuenean epaileek ezin zutela enpresariaren borondatea moldatu. Inpunitate osoa nahi dute.
- Kaleratze kolektiboei erraztasuna ematen zaie eta norbanako erreklamazioei oztopoak jartzen dira, behin betiko epaia edo konziliazioa eman eta gero.

Gobernua, hitz hutsalaz, hobekuntza teknikoaz aritzen da epaitegien gainezkatzea ekiditeko. ELAren iritziz hau adarra jotzea da; hipokresia hutsa. Neurriok enpresariaren aldebartasuna indartzen dute, beste behin.

Gobernua, bestalde, iragarri du "independientea den erakunde baten menpe (OCDE)" utziko duela 2012ko Martxoko erreformaren balorazioa eta "hobekuntza proposamenak egin ditzan". OCDE-ren eskuetan hori uzteak azeria oilategia zaintzen uztea bezalakoa da. OCDE-ek honezkero kaleratzeak merkeagotu eta lan hitzarmenak suntsikzeko eskaera eginga du. Erreformak ez dira amaitu. Zenbat denbora pasako da Troiak bere egiteko Nazioarteko Moneta Funtsak eginikojarrera ultrak? Bere errezetek mundu osoan porrot egin dute eta pobrezia areagotu, bereizkeriak handitu eta hiltzoria besterik ez dute ekarri. Nahikoa da kapitalaren aurrean jarrera hain otzana izateko! Inoiz baino beharrezkoagoa da borroka sindikala eta soziala.